

ARGI-ZENTZUN-EGIA BILA**Europako emakume bat Euskadirako eredu: Edith Stein**

Gizaldietan zehar gizonak eragiten dute kultura, eta kulturak gizona moldatzen du. Krisialdian gizonak krisia eragiten dutenean, krisiak gizona bera astindu egiten du.

Gaur egun non eta nola ote dago gure egoera?

- Herri eta herri-izate mailan,
- giza eta gutxiengoaren kultur mailan,
- unibertsitate eta heziketa mailan,
- emakumeen eta euren eskubideen mailan,
- pertsonek askatu izan nahiaren mailan.

Krisia nagusitu den herri batetako gizon-emakume eta gazteengan egia-ardura, izan-nahi-ardura, argi-ardura somatzen ez denean, ez dago etorkizunik.

Euskaldunak begiak zabalik, egia-bila ikusten ote ditugu ala begi-bihotzak itxita? «Kultura» txiki bat ezarri nahian, benetako beste batzuk zapalduz? Bizi-bila gorrotozko hil nahian? Zentzun bila, droga eta manipulazio giroan? Askatasun bila gezur eta iruzur giroan? Egia-bila unibertsitateetako jakintza giroan ala ikuspegi itsutik pentsamolde estu ta pobreak sartu nahian? Egiaren bila ez diharduen gaztea ez al dago gaisorik?

Gizaldi honetako emakume gazte bat dugu hor:

Alemaniarako judutarra, filosofo ospetsua,
aurreritiz lotutako sinesgabea edo agnostikoa,
baina bihotzez argi-egia bila... eta ia 30 urte zituela fedea aurkituz,
egiagatik pozez beterik bere lanean aurrera egin zuena:
Unibertsitate mailan maitatua,
emakumeen eskubideen aldeko burrukan lehenengotariko izanik,
Europako nazioetan zehar, hitzaldiak ematen eta emakumearen
abadetzaren alde ere gogor aritua;
bere filosofia-lanetan egia aztertzeari eta sakontzeari darraio beti
eta hau filosofia berri baten ikuspegitik ere bai, fenomenologiaren
ikuspegitik:
egiaren bila, gauzen izaeraren arrazoiaren bila...;
baina judutarra izanik, Alemanian bere judutar herriarekin batera
jazarria, zapaldua; Auschwitz-eko oinaze-zelaira daramatenean
bere ahizpari zera dio: «goazen geure herriaren patua leporatzerara»;
ez dago haren begirapenean etsipenik ez amorraziorik,
gorputzean oinaze gorriaren iluna, baina bihotzean argia, egia.
51 urte zituen hil zutenean.

Maiatzaren 1.ean Elizak zoriondunen mailara jaso du; besteon eredutzat altaretan ezarri du.

Nola edo zeren eredu?
Emakume gazte ireki-irekia,
bila ari den emakume filosofoa,
justiziaren eta egiaren bila,
kontzientziak argitzen, giza-maitasunari leku egiten...
Egia eta argia, dauden tokian daudela, onartzeko, sakontzeko,
maitatzeko prest. Hori da filosofo izatea, gazteentzat eredu:
jakin-nahian, egia-bideak urratzen, gauzen arrazoia eta sustraia
galdetuz, argiari begiak zabalduz...
Benetako jakin-nahian ez dago manipulazio gogorik,
ez dago pentsamolde bat auzatzearen egia zapaltzerik...

Edit Stein, gazteen eredu,
fedegabekoen, emakumeen, filosofoen, judutarren, kristauen
eredu.

Euskaldunoi berri on hau dakarkigu:
bihotz-buruak zabalik bilatu argia, egia, zentzun ona;
bilatu zeu izatea, herri izatea!
bilatu, ez desegin, bilatu! Bilatu zeure burua!
Argia, egia aurkitutakoan izango duzu zerez edo eta zer
desegin!

*«Ez dago profesiorik
emakume batek bete ez litekenik.
Ez dago emakumerik soil «Emakume» danik;
bakoitzak du bere izate ta langaitasun berezia
gizonena bezain ona,
eta izate ontaz baliaturik
emakumeak profesio guztietarako du gaitasuna:
Arte, Zientzi, Teknika eta beste eratan»*

Edith Stein

1930ean Salzburgo'ko itzaldian

*«Mundua kontrajartze askoz bizi da.
Azkenean kontraste auen ezer ez da geldituko.
Bakarrik maitasun aundia geratzen da!»*

Edith Stein

*1942-VIII-7an, Westerbork oinaze-zelain,
Auschwitz oinaze-zelaira, iltzera, eraman zuten egunez.*